

## Kudeaketari buruzko txostena

2012ko maiatzean, behin obren garaia igaro eta gero, jarduerari ekin zitzaion handitutako instalazio berrietan.

Jatorrizko instalazioei 2.200 metro koadroko hall zabal, garden eta argitsu bat erantsi zaie; metro koadro horiek, gainera, hasierako erakusketa hall-ari gehitzen zaizkio maila berean. Gauzak horrela, maila berean 4.200 metro koadroko erakusketa aretoa lortzen dugu guztira.

Handitze lanen barruan, askotariko erabilera eremu bat dago, 596 metro koadrokoa, beiraz hornitua eta argi naturala duena. Harrera gisa erabil daiteke, bai eta bertaratutako pertsonak hartzeko edo banatzeko, bilerak egiteko edota koktelak, catering-ak eta jatekoak emateko ere.

Halaber, gure eskaintza handitu dugu 435 pertsona hartzeko moduko beste konferentzia areto batekin; areto hau bitan bana daiteke, 285 eta 132 pertsonari zuzenduta, hurrenez hurren. Gainera, aretoak behar besteko ekipamendua dauka kultur ekitaldiak aurrera eramateko 416 ikusleko edukiera batekin.

Funtzionalki biltegien eremu berri bat sortu da (1.750 m<sup>2</sup>koa), hasierako eraikinaren behealdeaz baliaturik. Instalazio hauetan aldagelak, altzarien, ikus-entzunezkoen eta argiztapen osagaien biltegiak daude, bai eta bezeroentzako biltegia, merkantziak hartzeko gunea eta jatekoen zerbitzurako biltegiak, aldagelak eta lantegia ere.

Instalazioa berriak abian jarri izanak ahalbidetu du Euskalduna jauregiak 2012. urtea tamaina handiko kongresurik gehien hartu duen ekitaldia izatea; kontuan hartu beharra dago tamaina handiko kongresuetan guztira 1.000 lagunetik gora hartu ohi direla. Gainera, hall berrian erakusketak egin ahal izan dira.

2012ko ekitaldian urteko egunen %93ko okupazioa lortu da. Okupazio indize horri honakoak gehitu behar zaizkio, 462 kongresu eta bilera, 393 emanaldi eta 506.492 bertaratu. Horrek ahalbidetu digu 2012. urteari begira ezarritako helburuak aise eta erraz lortu izana eta espainiar estatutako kongresu jauregien rankingean daukagun kokapen pribilegiatuari eutsi izana.

Euskalduna jauregiko instalazioetan 855 ekitaldi eta emanaldi egin ziren 2012. urtean barrena.

## Informe de Gestión

En mayo de 2012, tras el periodo de obras, comenzó la actividad en las nuevas instalaciones de la ampliación ejecutada.

Se han incorporado a las instalaciones iniciales un nuevo hall amplio, diáfano y luminoso de 2.200 metros cuadrados que se unen, a un mismo nivel, al hall de exposiciones inicial, con ello alcanzamos un total de 4.200 metros cuadrados de espacio expositivo a un mismo nivel.

La ampliación realizada incorpora un área multiusos de 596 metros cuadrados acristalado y con luz natural. Actúa como lugar de recepción y centro de distribución de asistentes, realización de reuniones y también podrá ser habilitado para cócteles u otros usos de catering y restauración.

Así mismo, hemos incrementado nuestra oferta con una nueva sala de conferencias con capacidad para 435 personas, divisible en dos con capacidades de 285 y 132 personas respectivamente. Dicha sala cuenta con equipamiento suficiente para la realización de eventos culturales con una capacidad de 416 espectadores.

Funcionalmente se ha creado una nueva zona de almacenes (1.750 m<sup>2</sup>) aprovechando los bajos del edificio inicial. En ellos se albergan camerinos, almacenes de mobiliario, audiovisuales y elementos de iluminación propios, zona de almacén para nuestros clientes, zona de recepción de mercancías, almacenes, vestuarios y obrador para el servicio de restauración.

La incorporación de las nuevas instalaciones nos ha posibilitado que el año 2012 haya sido el ejercicio con el mayor número de congresos de gran tamaño, es decir, aquellos que suponen más de 1.000 asistentes, celebrados en Euskalduna. Así como la realización de exposiciones en el nuevo hall.

En el año 2012 se ha alcanzado una ocupación del 93% de los días del año. Este índice de ocupación, unido al número de congresos y reuniones 462, las 393 representaciones los 506.492 asistentes nos ha posibilitado alcanzar holgadamente los objetivos marcados para el año 2012 y nos ha permitido mantener nuestra privilegiada posición en el ranking de Palacios de Congresos del Estado español.

En las instalaciones de Euskalduna se realizaron a lo largo de 2012 un total de 855 eventos y representaciones.

Ekitaldian eta kalitatearen alde egindako apustuari jarraipena eman nahian, Euskaldunak honako egiaztagiriri hauek guztiak berriitu ditu: kalitate kudeaketarako 9001:2008 ISO, ingurumen kudeaketarako 14001/2004 ISO, laneko segurtasun eta osasunaren kudeaketarako 18001/2007 OHSAS eta kongresu jauregien kalitate turistikorako 187004/2008 UNE. Era berean, irisgarritasun eta iraunkortasun arloak hobetzeko ekintzak plangintza eta egitasmoak eraman dira aurrera.

Hori guztia dela eta, Euskalduna jauregiak lehen mailako erreferentzi puntua izaten jarraitzen du, kongresu eta bilera jarduerak aurrera eramateko eta askotariko kultur, gizarte eta aisialdi adierazpideak abiarazteko.

#### Jarduera

Aurreko ekitaldian ere aurreikuspen guztiak gainditu dira: 462 biltzar eta bilera, eta 393 musika emanaldi eta ikuskizun.

#### Biltzar eta bilera jarduerak

Biltzar eta bilera kopurua honela banatzen da:

<input type="checkbox"/> Biltzarrak eta antzekoak / Congresos y Asimilados	34
<input type="checkbox"/> Batzar eta Asanblada Orokorrak /Juntas y Asambleas Generales	21
<input type="checkbox"/> Enpresako Ospakizunak eta Konbentzioak /Convenciones y Actos de Empresa	19
<input type="checkbox"/> Mintegiak eta Jardunaldiak /Seminarios y Jornadas	315
<input type="checkbox"/> Gizarte Ekitaldiak /Actos Sociales	18
<input type="checkbox"/> Ikuskizuna duten Gizarte Ekintzak /Actos Sociales con Espectáculo	7
<input type="checkbox"/> Erakusketak/Exposiciones	6
<input type="checkbox"/> Bestelakoak (Erakusketak, irrati eta telebista saioak, eta abar.) / Varios (Exposiciones, programas de radio y TV, etc..)	51

Maiatzean eta urrian zazpi kongresu egin ziren eta ekainean sei; horietan izan ziren kongresurik gehien hartu zituzten hilabeteak. Gainera, maiatzean urteko jarduera kopururik handiena izan zen; guztira 72 bilera ekitaldi egin ziren. Azken ildo horretan, urria eta ekaina ere nabarmendu behar dira.

Honako kongresu hauek guztiak oso esanguratsuak izan ziren: Gaixotasun Infekziosoen eta Mikrobiologiaren Espainiar Elkartearen XVI. Kongresua; Lan Arriskuak Prebenitzeko Nazioarteko 10. Kongresua; Publizitate Komunikazioaren El Sol Iberoamerikar Jaialdia, Famili eta Erkidegoko Medikuntzaren Espainiar Elkartearen XXXII. Kongresua, Health Technology Assessment Nazionala 9th Annual Meeting, Psikiatriako XVI. Kongresu Nazionala, Ospitale Farmaziaren Espainiar Elkartearen 57. Kongresu Nazionala eta Hydro 2012 International Conference and Exhibition

Durante el ejercicio, y como continuación de la apuesta por la calidad, Euskalduna ha renovado las certificaciones de Gestión de Calidad ISO 9001:2008, Gestión Medioambiental ISO 14001/2004, Gestión de Seguridad y Salud en el trabajo OHSAS 18001/2007 y de Calidad Turística de Palacios de Congresos UNE 187004/2008. Así mismo se han abordado planes de acción par ala mejora de las áreas de accesibilidad y sostenibilidad.

Por todo ello, el Palacio Euskalduna sigue siendo un punto de referencia de primer orden para un gran número de actividades congresuales y de reunión así como para múltiples manifestaciones culturales, sociales y de ocio.

#### Actividad

En este ejercicio se ha alcanzando la cifra de 462 reuniones y eventos congresuales y 393 representaciones musicales y espectáculos.

#### Actividad Congresual y de Reuniones

El número de congresos y reuniones se distribuye en:

Mayo y octubre, con siete, y junio, con seis, fueron los meses que registraron mayor número de congresos. Además, mayo aglutinó la mayor actividad del año, con 72 eventos de reunión. También destacaron en este aspecto noviembre y junio.

Resultaron especialmente significativos el XVI Congreso de la Sociedad Española de Enfermedades Infecciosas y Microbiología Clínica; el 10º Congreso Internacional de Prevención de Riesgos Laborales, el Festival Iberoamericano de la Comunicación Publicitaria El Sol, el XXXII Congreso de la Sociedad Española de Medicina de Familia y Comunitaria, el Health Technology Assessment Internacional 9th Annual Meeting, el XVI Congreso Nacional de Psiquiatría, el 57 Congreso Nacional e la Sociedad Española de Farmacia Hospitalaria e Hydro 2012 International Conference and Exhibition

Batzarrak eta biltzarrak martxotik ekainera bitartean bildu ziren. Euskalduna Jauregian, besteak beste, honako batzar edo biltzar hauek egin ziren: BBVAko eta Iberdrolako Batzar Nagusiak, Iparkutzako Ohiko Biltzar Nagusia, Eroskiren lan bazkideen prestakuntza batzarra eta Athletic klubaren ohiko eta ezohiko biltzar nagusiak.

Halaber, jauregian honako hauek ere egin ziren, besteak beste: CEBEKen 2012ko enpresa topaketa; European Year of Active Ageing and Solidarity Between Generations 2012; "Mundua eraldatzeko Ideien Bila" gaur egungo Gogoeta eta Hausnarketa Jardunaldiak; Prestik gazte enpleguaren azoka, 10.000 pertsona baino gehiago hartu zituen; Metro eta Lur Azpiko Trenen Latinoamerikar Elkartearen Topaketa; Innobasque-ren Global Innovation Day; Itsas Eremuaren Kudeaketari eta Klima Aldaketa Apaltzeko Ekosistemaren Ikuspegiari buruzko Bilgune Atlantikoaren Tailerra; Telefónica-ren Urteko Konbentzioa; Fun & Serious Game Festival; Euskadiko Etxebizitzen eta Dekorazioaren Aretoaren VI. edizioa edo "Clickkek Bilbo inbaditu dute" erakusketa.

Euskalduna jauregian bilera eta ekintza ugari ere izan ziren, bai alderdi politikoenak bai erakunde sindikalenak ere.

#### Jarduera musikal eta artistikoa.

Beste alde batetik, musikaren eta ikuskizunen jarduera 393 emanaldikoa izan zen 2012. urtean. Emanaldi horietatik 174 auditoriumean izan ziren, 116 antzerki aretoan, 31 Areto Barrian eta 72 jauregiaren beste areto batzuetan.

2012an barrena Euskalduna jauregian musikaren, kantaren edo arte eszenikoen figura ugari izan dira; horien artean honako hauek nabarmendu edo azpimarra ditzakegu, besteak beste: Ryusuke Numajiri, Yaron Traub, Diego Matheuz, Roberto Rizzi-Brignoli, Fiorenza Cedolins, Fabio Sartori, Juan Jesús Rodríguez, Martina Serafín, Marco Berti, Amaral, La Oreja de Van Gogh, James Taylor, Julio Iglesias, Bon Iver, Sergio Dalma, Manolo García, Benito Lertxundi, Wilco, Fito & Fitipaldis, Carlos Latre edo Justin Vernon.

Era berean, arrakasta handia lortu zuten honako ekitaldi hauek: "Euskaldunak eta dantza", Alicia Amatriainekin eta Asier Uriagerekarekin izar gonbidatu modura eta "La Baraka" eta "Vinática" Dantzaldiaren zikloaren barruan, "Zisneen Lakua" edo "Urte Berriko Kontzertua".

Las Juntas y Asambleas se concentraron entre los meses de marzo y junio. El Palacio Euskalduna acogió, entre otras, las Juntas Generales del BBVA y de Iberdrola, la Asamblea General Ordinaria de Iparkutxa, la Junta Preparatoria de Socios de Trabajo de Eroski, así como las Asamblea Generales Extraordinaria y Ordinaria del Athletic Club.

Asimismo fue escenario, entre otros, del Encuentro Empresarial CEBEK 2012; de European Year of Active Ageing and Solidarity Between Generations 2012; las Jornadas de Pensamiento y Reflexión Contemporánea "Buscando ideas para cambiar el mundo"; la Feria de Empleo Juvenil Prestik, a la que acudieron más de 10.000 personas; el Encuentro de la Asociación Latinoamericana de Metros y Suburbanos; Global Innovation Day de Innobasque; el Taller del Foro Atlántico sobre Gestión del Espacio Marítimo y Mitigación del Cambio Climático bajo el Enfoque del Ecosistema; la Convención Anual de Telefónica; Fun & Serious Game Festival; la VI Edición del Salón Inmobiliario de Viviendas y Decoración de Euskadi o la Exposición "Los "clicks" invaden Bilbao".

También se han desarrollado en el Palacio Euskalduna numerosas reuniones y actos, de diferentes partidos políticos y organizaciones sindicales

#### Actividad Musical y Artística.

Por su parte, la actividad musical y de espectáculos ascendió en 2012 a un total de 393 representaciones. De ellas, 174 tuvieron lugar en el Auditorium, 116 en la Sala Teatro, 31 en la Sala Barria y 72 en otras Salas del Palacio.

A lo largo de 2012 han actuado en el Palacio Euskalduna numerosas figuras de la música, el canto o las artes escénicas entre las que cabe destacar, por ejemplo, a Ryusuke Numajiri, Yaron Traub, Diego Matheuz, Roberto Rizzi-Brignoli, Fiorenza Cedolins, Fabio Sartori, Juan Jesús Rodríguez, Martina Serafín, Marco Berti, Amaral, La Oreja de Van Gogh, James Taylor, Julio Iglesias, Bon Iver, Sergio Dalma, Manolo García, Benito Lertxundi, Wilco, Fito & Fitipaldis, Carlos Latre o Justin Vernon.

También cosecharon importantes éxitos la VII Gala "Los vascos y la danza", con Alicia Amatriain y Asier Uriagereka como grandes estrellas invitadas y "La Baraka" y "Vinática" dentro del ciclo Dantzaldia, "El Lago de los Cisnes" o "El Concierto de Año Nuevo".

Euskaldunan Aste Nagusiko zikloa garatu zen lau asteetan jauregiaren lau areto nagusietan (auditoriuma, antzerki aretoa, A-3 aretoa eta Areto Barria) 54.325 ikus-entzule izan ziren; guztira 1.549,123 euro bildu ziren, jauregiaren historian izandako aurreko errekorra apurtuz.

“Sonrisas y Lágrimas” musikalak arrakasta handia lortu zuen; guztira 25.691 ikus-entzule izan zituen eta Bilboko Aste Nagusiaren barruan hura izan zen musikal eta antzezlan guztien artean batez besteko asistentziarik handiena lortu zuena. Honako antzezlan hauek ere azpimarratu behar dira: “El Apagón”, “El tipo de al lado”, Burundanga” eta “¡Sin paga, nadie paga!”.

Beste alde batetik, txarteldegian 524.088 euro utzi zituzten 45.054 ikus-entzule Gabonetako zikloaren programazioaren barruan eskainitako ikuskizun eta erakusketetara bertaratu ziren.

Playmobil-eko “click”-en erakusketa nabarmendu zen; erakusketa Euskalduna jauregian handitutako hall berrian egin zen eta guztira 32.064 pertsona bertaratu ziren, txarteldegian 156.320 euro utziz. Zenbait hiritan orain arte egindako erakusketa honen errekorra.

Sarrera salmentari gehi ikusle (318.993) eta emanaldi kopuru handiei esker, estatuko entzunareto publikoen artean postu nabarmena lortu dugu.

#### Okupazio datuak

Okupatze datuetara pasatuz gero, honakoak aurkituko ditugu:

- Okupatze egunak: 340
- Urte osoko okupatze ehunekoa: %93 (365 egunetik)

#### Ikusle kopuruaren datuak

2012. urtean zenbatu den ikusle kopurua 506.492 da.

#### Datu ekonomikoak.

2012ko ekitaldian, Elkartearen diru-sarrerak 8.137.373,73 euro izan dira guztira, honela banatuta:

Las cuatro semanas en las que se desarrolló el Ciclo Aste Nagusia en Euskalduna congregaron en las cuatro salas del Palacio (Auditorium, Sala Teatro, Sala A-3 y Nueva Sala Barria) un total de 54.325 espectadores, con una recaudación acumulada de 1.540.123 euros, nuevo récord en la historia del Palacio.

Logró un gran éxito el musical “Sonrisas y Lágrimas” que tuvo un total de 25.691 espectadores y fue el espectáculo que obtuvo mayor asistencia media por función de todos los musicales y obras de teatro de la última Aste Nagusia bilbaína. También destacaron el conjunto de obras de teatro representadas: “El Apagón”, “El tipo de al lado”, Burundanga” y “¡Sin paga, nadie paga!”.

Por otra parte, 45.054 espectadores, que dejaron en taquilla 524.088 euros, asistieron a la exposición y los diferentes espectáculos ofrecidos durante la programación del ciclo navideño.

Destacó muy especialmente la muestra de los “clicks” de Playmóbil, celebrada en el nuevo Hall de la ampliación del Palacio Euskalduna, que fue vista por 32.064 personas que dejaron en taquilla 156.320 euros, cifra récord de las exposiciones realizadas hasta ahora en varias ciudades

La venta total de entradas, unida a la cifra de espectadores (318.993) y al número de representaciones llevadas a cabo nos han llevado a una destacada posición entre los Auditorios Públicos españoles.

#### Datos de ocupación

Esta actividad traducida a datos de ocupación, arroja los siguientes datos:

- Días de ocupación neta 340.
- Porcentaje de ocupación anual (sobre 365 días): 93 %

#### Datos de asistencia

El número de asistentes estimado en el año 2012 es de 506.492, el más alto desde la inauguración.

#### Datos económicos.

En el ejercicio 2012 los ingresos totales de la Sociedad se han cifrado en 8.137.373,73 Euros, con el siguiente desglose:

	Euros
<input type="checkbox"/> Ustiapenagatiko diru-sarrerak / Ingresos de Explotación	7.336.845,61
<input type="checkbox"/> Finantza diru-sarrerak / Ingresos financieros	171.133,96
<input type="checkbox"/> Kapital subentzioak, emaitzetara aldatuak / Subvenciones de Capital traspasadas a resultados	629.394,16

Gastuen kapituluak 8.346.452,31 euroko zenbatekoa erakusten du, ondoko desglose honekin:

El capítulo de gastos arroja un importe de 8.346.452,31 Euros, con el siguiente desglose:

Concepto	Euros
<input type="checkbox"/> Langileriaren gastuak / Gastos de personal	1.303.981,06
<input type="checkbox"/> Amortizaziorako zuzkidurak / Dotación a la amortización	1.340.693,75
<input type="checkbox"/> Bestelako ustiapen gastuak /Otros gastos de explotación	5.700.990,89
<input type="checkbox"/> Hornikuntza aldaketa / Variación de Provisiones	-----
<input type="checkbox"/> Finantza diru-irteerak/Gastos financieros	786,61

Kontusail horietatik ekitaldi honetan 502.221,01 euroko cash-flow positiboa ondorioztatu da.

Estas partidas han dado lugar a un cash-flow positivo en el ejercicio de 502.221,01 Euros.

Ekitaldiaren emaitza 209.078,58 euroko galera izan da.

El resultado del ejercicio es de 209.078,58 Euros de pérdidas.

2012an kapitalizatutako gastuen bolumena ondorengo hau izan da:

El volumen de costes capitalizados en 2012 ha sido el siguiente:

Kontzeptua / Concepto	Euro/Euros
Euskalduna jauregia handitzeko lanak / Ampliacion del Edificio de Euskalduna	10.920.446,77
Euskaldunan handitutako eraikinaren instalazio berriak / Nuevas instalaciones en el edificio ampliacion de Euskalduna	2.960.308,62
Areto Barriaren tabike mugikorak, hallen eta kafetegiaren banaketa / Tabiques móviles Sala Barria, separación de Halles y cafeteria	603.499,64
Areto Barriaren jesarlekuak / Butacas Sala Barria	506.639,72
A1 aretoko eszena makilen motorizazioa / Motorizacin de varas de escenario en la sala A1	251.667,92
Irisgarritasuna hobetzeko asmoz, gaur egungo instalazioak egokitzeko lanak / Adecuacion de las instalaciones actuales a la mejora de la accesibilidad	156.315,26
Bulegoak baterabiltzea / Reunificacion de oficinas	127.679,08
Ikus-entzunezko ekipoa berritzea eta erostea (nonitorea, plasmak, mikrofonoak...) / Renovacion y compra equipos audiovisuales (Monitores, plasmas, microfonos...)	118.686,02
Kongresuen altzariak berritzea (erakusmahaiak, palak, aulkiak, mahaiak, euritako ontziak...) / Renovacion de mobiliario de congresos, mostradores, palas, paragüeros, sillas, mesas...	116.068,52
Eraikinaren eta instalazioen iraunkortasuna hobetzeko jarduketak (LEED) / Actuaciones para las mejoras de sostenibilidad del edificio e instalaciones (LEED)	104.451,00
Areto Barriaren eszenatokia / Escenario Sala Barria	94.302,84
Soinu mahaiak eta ikuskizunen argiztapena / Mesas de sonido e uluminacion espectacular	76.772,00
Kafetegiko altzariak / Mobiliario Cafeteria	19.610,99
Oihala / Telón	17.689,85
Altueran egin beharreko konponketarako gailu altxagarriak / Maquinaria elevadora para reparaciones en altura	17.354,00
Aldi bereko itzulpen ekipoa / Equipo de traduccion simultanea	10.265,16
Kudeaketa aplikazio informatikoak / Aplicaciones informaticas de gestión	6.594,00
Guztira / Total	16.108.351,64

## Sozietatearen kapitala

2012ko abenduaren 21ean jendaurrean azaldu da 2011ko apirilaren 19an kapitala 9.994.829,56 euroan handitzeko hartutako erabakia; horretarako, bada, 6.010,12 euroko balio nominala izango duten 1.663 akzio berri sortuko dira. Horiek guztiak Bizkaiko Foru Aldundiak eskuratu eta ordainduko ditu oso-osorik.

Handitze hau Bizkaiko Foru Aldundiarekin 2010eko abenduaren 30ean izenpetutako lankidetzaren hitzarmenaren barruan kokatu beharra dago; hitzarmen hori Euskaldun Jauregia handitzeko sinatu zen. Hitzarmenak 18.704.292,51 euroko aurrekontua dauka eta bertan bazkide bakarraren ekarriak jasotzen dira: 2011ko ekitaldian 5.000.419,84 euro eta 2012ko ekitaldian 9.994.829,56; horretarako, bi kapital handitze horiek izenpetu eta ordaindu dira eta gainerako zatia jauregiak berak finantzatu behar izango du; era berean, jauregiak ere aurre egin behar izango die hurrengo urteetan aurreikusiko diren ekipamendu berrikuntzei.

Urtean zehar, Elkarteak 22 pertsonako lanpostu zerrendari eutsi dio.

## 2013rako aurrerapena

2013an Euskalduna Jauregia garrantzi handiko bilera ekitaldi batzuen egoitza izango da; horien artean honako hauek nabarmendu behar dira, besteak beste: jadanik egin den Euskadiko CC Ooren X. Kongresua, ELAren 2013ko Lankidetu Kongresua, Ospitaleen XVIII. Kongresu Nazionala, 2013 European Cleantech Forum, Etxeko Ospitaleratze Espainiar Elkartearen Jardunaldi Nazionalak, Katolikoen eta Bizimodu Publikoaren VIII. Jardunaldiak, Dialisi eta Transplanteen Espainiar Elkartearen XXXV. Kongresua, Adopzioen gaineko Ikerketaren Nazioarteko Kongresua (ICAR 4), Nefrologiaren Espainiar Elkartearen XLIII. Kongresua, Segurtasun Farmazeutikoaren 8. Kongresu Nazionala eta Laborategi Klinikoko VII. Kongresu Nazionala.

Aurtengo helburuak okupatzearen %85 gutxienez izango dira, eta ustiaketan diru-laguntzarik ez jasotzea.

## Capital Social

Con fecha 21 de diciembre de 2012, se ha elevado a público el acuerdo de ampliación de capital de fecha 19 de abril de 2011, por importe Euros 9.994.829,56, mediante la creación de 1.663 nuevas acciones de 6.010,12 euros de valor nominal cada una que fueron suscritas y desembolsadas íntegramente por la Excm. Diputación Foral de Bizkaia.

Esta ampliación se enmarca en el convenio de colaboración firmado con la Excm. Diputación Foral de Bizkaia el 30 de diciembre de 2010, para la construcción de la ampliación del Palacio Euskalduna. El convenio, con un presupuesto de 18.704.292,51 Euros, recoge las aportaciones, por parte del socio único, de 5.000.419,84 Euros en el ejercicio 2011 y de 9.994.829,56 Euros para el ejercicio 2012, mediante la suscripción y abono de ambas ampliaciones de capital, siendo el resto financiado por el propio Palacio que también hará frente a las renovaciones de equipamiento previstos para los próximos años.

La Sociedad, durante el año ha mantenido su plantilla que a 31 de diciembre de 2012 es de 22 personas.

## Avance 2013

En 2013, el Palacio será sede de algunos eventos de reunión de especial importancia entre los que cabe destacar el ya celebrado X Congreso de CC OO de Euskadi, el 2013 Congreso ELA. Lankidetu, el XVIII Congreso Nacional de Hospitales, 2013 European Cleantech Forum, las Jornadas Nacionales de la Sociedad Española de Hospitalización a Domicilio, las VIII Jornadas Católicas y Vida Pública, el XXXV Congreso de la Sociedad Española de Diálisis y Transplante, las 5ª Jornadas cardiovasculares de Semergen, el Festival El Sol 2013, el Congreso Internacional de Investigación sobre Adopciones ICAR 4, el XLIII Congreso de la Sociedad Española de Nefrología, el 8º Congreso Nacional de Seguridad Farmacéutica y el VII Congreso Nacional de Laboratorio Clínico.

Los objetivos para el año se sitúan en una ocupación mínima del 85% y la no utilización de subvenciones para la explotación.